

# OLERKIAK (I), (II) eta (III)

**XABIER GALARRETA**



© Marjinalia Bilduma  
Lege-Gordailua: SS-36/02

# **OLERKIAK (I)**

## HILKO ZAITUT

Hilko zaitut, bai.  
Goizean, gutxien espero duzunean.  
Hilko zaitut behin, bitan, hirutan.  
Hilko zaitut hainbat bider,  
zuk ni bezala.  
Goizeko zortziak izango dira  
—edo beste edozein ordu—  
eta zure begiradan ez dut aurkituko  
galdera bat bera ere,  
kexa bakarra ere,  
ezer ez,  
zure betiko indiferentzia baizik.  
Hilko zaitut  
goizean, egun horretarako planak egiten ari zinela,  
udaberriko goiz eguzkitsu horretxetan,  
munduaren jakin-ezaren erdian,  
zure lekukotasun isil, indiferenteari begira  
hilko zaitut  
behin, bitan, hirutan  
ziurtasunaren jabe izan artean  
ezpainetan amets bat bezala eramaten dudan grina  
ezohiko, larri honen islak sekula  
[bakean utziko ez nauela, jakinik].  
Hilko zaitut labanaz,  
kutxiloz (egunero abere hilen okela mozteko  
erabiltzen dudan horretxetaz);  
a, nola hilko zaitudan!  
behin —lehenbizi—

eta gero bitan eta azkenik...  
eta azkenik hirugarrenik  
sartuko dizut idazluma  
sastagaia balitz bezala  
bihotza lo dautzan tokiraino  
(zure ametsak iratzarriko dituen sastakada  
—ahaztu ez dezazun zeinen erraz,  
zeinen nekosoa den  
behin, bitan, hirutan hiltzea—)  
goiz-goizero, urteko 365 egunetan,  
euripean ala eguzkitan,  
hotza ala beroa dagiela.  
Hilko zaitut,  
eta ez duzu inoiz jakingo  
nire arrazoiaren berri,  
ezagutu ere ez bainauzu egingo  
—bost kontinenteetan,  
aro guztietan, aberats eta txiroek,  
kunplituak eta barrengabeak  
beti gogoan izango banaute ere...

## DESIRAK

Ez naiz gizonik onena izan,  
baina ezta txarrena ere.  
Ibilira naiz, beste asko bezala,  
lur puska baten bila —niretzako—,  
eta oinetan lurra zabaldu zaidanean,  
huts egin dudala ulertu dut.  
Eta ez naiz gehiegi larritu;

larritu naiz, ordea, neure burua zerbait —ez nintzen  
norbait— izan-nahian ustekabeen harrapatu  
dudanean.

Eskertzen dizuet, zuen isiltasuna  
—irainak baino jasangarriagoa baita—;  
aurrerantzean, zer egin behar dudan erabaki  
aurretik,  
hitz ematen dizuet  
lehen-lehenik  
nire bihotzari galde egingo diodala.  
Eta hor ere erantzunik kausituko ez banu,  
orduan,  
gizon portatzen saiatuko naizela.  
Bihoakizuela nire agurrik zinezkoena  
—lurreko "tapa" irekitzeko ahalegina egin ostean,  
obligaturik nago eta.

## AKER BELTZ

Mesedez,  
prosa gehiagorik ez.  
Hitzak... nori axola?  
"Revolution".  
Orain, utzidazue hiltzen.  
Nire hil-ordua da.  
"Esto tiene que acabar".  
Ipuin txar bat, besterik ez.  
Hainbeste alditan, nola hitz eman ziguten!  
"Ilunean Bakarka"  
izenburua daramaten ehunka film barregarri  
ikusita dauzkagu.

Baina alferrik da:  
existentziak huts egiten digun tokian  
ezin dugu liburu bat sar.  
Horregatik borrokatzen gara,  
hilko garela ziurtasun osoa dakigularik.  
Ez tronpatu, lagunok...  
askoz hobe baia  
"entronpatzea".  
Horixe da bizitzaren alde jatorra, noblea...  
Ameskeriaz egina dago gure giza ideologia  
—garbitzerik ez daukaguna lixiba erabilita ere—,  
eta ez zaigu inporta  
eta ez du garrantzirik.  
You see,  
you think that his a poor...  
Nobody will be sure...  
Those men...  
Gauza bat esan nahi dizut:  
nik zukan zuk nigan adina fede daukadala.  
Baina ez dago nire esku eroritako aldizkari, artikulua  
oro  
hankaz gora jarri eta osterara ere bere tokian jartzea.  
Neuk ere egina baitaukat halako itun bat  
Akelarreko Nagusiarekin...

## LAKLEZEVZ

Seropiksehikoak  
meberlé-meberlé  
anío-uttelé-asshh!  
Neropikosehiko,  
astuerlié-astuerlié.  
Nemé-nemé!  
Aieronemekopek!  
Nemé-nemé!  
Yshuestekopi-kopi-kopi  
seroko-sehikopokoek,  
némelé-némelé.  
Angousihempakate  
neomubliete...  
Ysshiié.  
Nemelé!!!  
Nemelé-Oieslumakaté!

## ORAINDIK MAITE ZAITU

Eta gero, hitzak apurtu egin ziren.  
Eta burua itzuli nuenean,  
zure begirada topatu nuen,  
eta orduan jakin nuen  
espero nuen guztia zinela  
eta itsasoak dikeak  
apurtuak zituela betiko.  
Gero, zure itzala zegoen tokirantz aurreratu  
nintzen,  
eta apenas izan nuen zuri ihes egiten uzteko astirik.

Saiatu naiz aro horretara itzultzen  
baina ez nuen inoiz lortu  
eta hondar-aleak  
lehen baino zenbagaitzagoak dira.  
Berriro alde egitekoa bazara,  
esaidazu.  
Eta jarraituko dizut.

## NIRE ISTORIO TXIKIA

Azkeneko aldiz  
linburtu gintuen  
sendimendu hau;  
zakarra, beti izan naizen bezala;  
eroa, halaxe bizi izan nintzen eta  
(erroskaz pasata, eta jada zahartuta).  
Hitzak ere zahartu egin dira  
eta nire burua traduzitzen bizi naiz gaur.  
Zerua kolorge dago,  
lakua lehor.  
Zementuz eta lakatzez eginiko hitzek  
gainezka egin dute osin horretan.  
Denbora hainbat bider abiatua da...  
Eta sexuak oraindik zutik iraunarazten du bere  
historiala.  
Heldu naiz heldu naizen tokira,  
eta inoiz irakurriko ez ditudan orrialdez blai nago.  
Bide ahaztu bat birraurkitzen egongo banintz  
bezala sentitzen naiz  
eta lokaturiko hitzak flotaka,  
espazio ornogabe honetan,



garbi ikusi ditut,  
beti egongo baita  
beste biharamon bat,  
aldaezina,  
okertezina,  
igartezina,  
ezinezkoa.

# **OLERKIAK (II)**

Orain, denbora amaiturik dagoela;  
eta bizitza sentitzeko ahalmena aienaturik  
daukadala...  
zer izan daitezke hitz hauek  
ezbaiko etorkizun baten etorrera ezkutua baizik?

\*\*\*

Bandera gisa daramadan doluak  
—olerkaria naizen aldetik—  
nire askatasun-egarriaz gozatzen uzten ez didanak,  
suzko hitz bat jaurki dit  
eta nire txundiduraren amildegitik hur-hurbil igaro  
da.  
*Egun hobeak ezagutuko ditugu, maitea.*

\*\*\*

Haizeak nire hitzak balaz josita utzi ditu  
eta loakartzen duzunean,  
orduan, ezari-ezarian,  
hitz bat oso gutxi dela iruditzen zait  
eta ezin diot hiztegiari bere benetako neurria  
atzeman.

\*\*\*

Une bat dago, non elixirrak uzten baitio obratzeari;  
kandela amaigabetasunez itzaltzen da,  
infinetua betekotasunez pizten den bitartean.

Taupa bat, zeinarekin amets dagien nire  
Unibertsoak  
hortxe, denbora guztietako gau hotz horretan.  
Ia-ia, indiferentziaz...

\*\*\*

Ahots bat altxatu da arrotz nere aurrean  
eta existentziaren esangura amarrugabea isuri zait  
alde guztietatik,  
tunela inoiz zeharkatzera joango ez banintz bezala.  
Naizenaren aurrean bakarrik gelditzen naizenean,  
agenda gordetzen dudan kaxoia ireki  
eta aspalditik ez dabiltzan telefono-zenbakiei  
begiratzen diet harriturik...  
Halako batean, etxeko telefonoa hoska hasten zait,  
baina ez dut hartzeko keinurik txikiena ere egiten.  
"Okerreko zenbakia markatu duzu"  
erantzuten dut ametsetan bezala, guztiz nere kasa.

\*\*\*

Gure buruari "zertarako" galde egiten diogun ueña  
da poesia;  
zer erantzunik ez dagoela konturatzen zarenean,  
goizeko ordu batean,  
alaiki abandonaturiko egunen burrunba azalgaitzak  
belarriak zulatzen dizkigunean.  
Orduan, zu agertzen zara  
zure gezur sentsualak medio ni engatusatzeko.  
Hitzak nonbait galdu ditut;  
lotsa handirik gabe aitortzen dut.

\*\*\*

Aterpe eman zigun gotorlekua lurrarekin berdindu  
zuen hustasun honek  
beti izan zuen nigan toki bat.  
Zu ikusita, zeharkaturiko egunek  
euren ahantzia dakarkidatela,  
oparitan edo,  
bideko hautsa biltzeari ekiten diot  
eta dagoeneko ikustezina den zeruertzean  
itzalitako egunetako unerik onena  
betiko galdu dudala sentitzen dut emozio  
deskribagaitzez.

\*\*\*

Egon zen, begirada hartan,  
samurtasun-une bat  
ostera ere sekula aurkitu ez nuena  
zenbait tokitan izan ezik:  
Ospitaleetan, non jendea hiltzera prestatzen den,  
Aulki elektrikoan exekutatu behar zutenengan,  
Afrikako zelai infinituetan,  
Arkaitz unibertsal baten patu bakarti eta  
zalantzazkoenean.  
Jendea bihotzez eta gorputzez sufritzen  
ikusi dudan bakoitzean,  
beti pentsatu dut:  
"Hau duk nire jendea".

\*\*\*

Pentsamendua  
lainoz inguraturik neukan;  
"Orain, halabeharraren esku zegok ontziaren lema"  
pentsatu nuen.  
Eta ez nengoen oker.  
Errautsetatik argi-izpi bat sortu zen  
begiak bostgarren pisuraino apalarazi zizkidana  
non auzoko batek ematen baitzuen azken arnasa.  
Kanpoan: kotxe ilarak,  
klaxonak, giza zaratak...  
Munduaren igarotze taiugabe, alai eta hotza.

\*\*\*

Poesia prosaren ezintasuna da  
bere erro karratura jasoa  
—la poesía es la imposibilidad de la prosa  
elevada a la raíz cuadrada de sí misma.

\*\*\*

Hamarrak eta koxka ziren  
erabaki larri batzuk hartu nituenean:  
kafea prestatu,  
zigarro errubioa piztu  
eta gauzak nola igarotzen diren  
begira jartzea.

\*\*\*

Haizeak bere bidaia neketsuen berri gaztigatu zidan  
Eta kilkerrek euren abesti aspergarriz estaltzen  
zituzten landako belar eta sastraka

[doilorrak].

Biharamonean, egun guztietan bezala urratuko zen  
eguna.

Eta nik, hamaikagarrenik nire existentzian,  
bizarra kenduko nuen ispiluaren aurrean  
ezer gertatuko ez balitz bezala.

"Bizitzea hori duk,  
maskarada hutsa..."

\*\*\*

Zer-edo-zer esan behar izanez gero,  
mihina jarriko dut dantzan;  
bestela, bego nagusi isiltasuna betiko.  
Hala pentsatzen dute amorfoek  
—nik, gustora entzuten didatenek,  
etxegabeek...—.

Abiatzeko leku bat badago  
eta beste bat aterpe hartzeko.  
Eta bi-biak dira betiko.

\*\*\*

Egutegiak bere egunak,  
bere alferrikako igarotzeak,  
erakusten zizkidan.  
Nik neure pentsamendu (apal)ak  
hausnartzen nituen  
goi-larreko ardiaren patxada berberaz,

gozaten neure alferrikako igarotzeaz,  
apur bat penaturik —ez oso—  
aurreko egunetan —eta biharkoetan—  
izan ez nituen  
—izango ez nituen—  
gauza guzti horietaz.  
"Jazza orain".  
Ederki.

\*\*\*

Sentitzen nuena  
hitzez jarri nahi nuen  
baina beste instant batera  
itzulita.  
Horrela denek jakingo lukete  
gauza guztiak bat-bera zirela  
eta gakoa —diferentzia—  
itzulpenarekin geniharduen  
une horretantxe zegoela.

\*\*\*



Isiltasuna neronen eskuekin apurturik neukan.  
Orain, guztiari su eman  
besterik ez nuen egin behar.  
Gainerantzekoa, denboraren esku gelditzen zen  
—balbulak itsasora eraman zituzten marinelen  
halabeharraren gisara—.  
Noizbait hitzik izan bazen,  
gertaera hura aspalditik behar zen lurpean egon.  
Geronentzat baizik ez baikara bizi  
(almidoiztaturiko itsaso irrigarri baten erdian).

\*\*\*

Orri txuri baten beldur  
izan zirenek  
beti eragin zidaten  
halako erdeinu isilkako bat...  
—zeharo gizaseme ondradua banaiz ere,  
Anakleto...

\*\*\*

Hainbeste lekutatik itzulita nengoen  
hainbeste begitarte ikusita neuzkan  
ezen onartu beharra daukadan:  
ez nintzela inon ere egon,  
ez nuela inortxo ere ezagutu.  
Den-dena izan zen zentzugabeko  
joan-etorria... onurarik bat ere ekarri ez zidana.

\*\*\*

Ondasun-izpi batek  
bularra kixkali zidan.  
Pakeboteak norabideari eutsi zion,  
axolagabe;  
baita munduak ere.  
Aspalditik ez negien otoitz  
—mundua otoitzez hain sobraturik zebilen...—.  
Nolazbait igarrita neukan  
nola-hala  
desberdina nintzela.  
Esaterako: 3 begi, 5 sudur  
eta 2 patu diferente nituen.  
Guztira, 10.  
O.K.

\*\*\*

Sukartiro  
neure bizitzako orrialdeak pasatzen nituen  
euforiaz ia-ia,  
ikusi gabe  
—ametitu nahi ukan gabe—  
horrek amaieratik  
gero eta hurbilagozten ninduela.  
Orduan hasten baikara hiltzen,  
gu ginen euri-tantak  
"itsasora doazen ibaiekin"  
bat egiten duenean.  
Hor dago gure galera...  
edo gure aurkikuntza...  
Bata zein bestea  
erremediorik gabeak, noski.

\*\*\*

1872az geroztik  
gauza bera egiten niharduen:  
patxarana edaten  
eta edaten  
eta edaten...  
Zer batzuk ez baitira  
inoiz agortzen.

\*\*\*

Nire morala zinez da estua.  
Hain estua ezen  
gau-gauero  
hiltzaileek, banku-atrakatzaileek,  
aktorea pornografikoek eta Nafarroako  
Lehendakariak  
telefonoz deitzen didaten,  
nire osasunaz interesaturik.

\*\*\*

Abuztua zen, dudarik gabe.  
Eta bularrean itxaropen handiak  
[hazten zitzaizkidan],  
muki erraldoien pareko.  
Muki orlegi, berde-berdeak ziren,  
hiru puntako sonbreirua besterik  
falta ez zutenak.  
Beti pentsatu nuen

itsasoa horixe zela:  
muki berde, infinitu, lardangatsu bat.  
Jainkoaren zazpigarren "maraviglia".  
Txakurraren putza, hi...

\*\*\*

"Egile horrek ez du txakurrik balio";  
"bere liburu guztiak zaborra baino ez dira";  
"euskaldunberri nazkagarri bat baino ez da";  
"alderantziz idazten du euskaraz".  
Gero, artikulua izengoiti batez sinatu,  
\*\*\* aldizkarira igorri  
eta hamar mila pezetakoa noiz jasoko zain gelditu  
zen.  
Halaxen dabilta literatur kritikari batzuk.  
Eta itxura piska bat egiteko edo,  
"kontrakultura" izenaren atzean  
ezkutatzen dituzte euren buruak.  
Hobe "Ajoblanco" leitu izan balute  
duela hogeitun urte...

\*\*\*

Idazlumak  
txu-botaka jarraitzen zuen,  
egia biribilak  
eta gezur galantak  
nahasten.  
Eta gauzak bukatu gabe uztearen ahalegina  
kosmos guztian eratutako  
lehenbiziko harri bilakatu zen.

Beti handi samar egokitu zitzaidan  
berokia zen lainoa;  
eta aurrera begiratu nuenean  
neronen ipurdia besterik ez nuen topatu,  
eta nire ipurditik ateratzen  
—erditze batean bezala—  
nire aurkako idazkiak argitaratzen  
bere bizitza osoa alferrik galdu  
zuen gizarajoa, zeinen izen-abizenak ez baititut  
aitatuko  
beti baliatu baitzen hamaika izengoitiz (izengoiti  
bakarra erabiltzeak izu-ikara batean  
[jartzen zuen eta]).

Egun batean, Infernuan elkar  
topatu eta esan nion:  
"Goraintziak hire ama putaren partez".  
Eta pentsatu bezala,  
ez zuen gaizki hartu, ez horixe...

\*\*\*

Nire bizitza  
hari batean zintzilik zegoela  
banekien.  
Beraz, kafea jarri nuen berotzen  
ekonomika zaharrear.  
Goizeko ordubiak ziren,  
edo laurak.  
Tira, nori axola...  
Puntua eta bereiz-ak  
bihotza horzkatzen zidan  
punteria milimetrikoaz.

Nire hatzazkazalak gero eta  
luzeagoak ziren,  
baita Unibertsoa ere.  
Heriotzak ez zidan axola  
—nere borreroari baino ez zion  
axola—.  
Egunak luzatu eta luzatu egiten ziren  
nor nintzen —nor hintzen—  
ahazteraino.  
Orduan, nire baitara itzuli nuen begirada.  
Eta begietan bi zulo huts neuzkala  
altxatu nuen osterara ere begirada  
itsu, erabat itsu  
—betiko zigorturik, nazkaturik—,  
hiesa ez daukala jakin berri duen  
putero ezkonberria baino zoriontsuagoa.  
Bizitza, azken batean,  
hori da: sekula elkartzen ez diren  
bi puntuz bereiziriko lerrokadura  
zuzen eta taiugabea,  
*yeometrikoa* eta guzti...

\*\*\*

Begiak itxi nituen.  
Gauean 200 pezetako eskeletoa zetorkidan gogora.  
Bidaia luzea zen (hori, bizitzakoa...)  
Erlojua matxuratuta neukan.  
Zakila aspalditik ez nuen erabiltzen  
(txiza egiteko ez bazen)  
eta nik bakarrik ulertzen omen  
nuen hizkuntzaz hitz egiten nuen / bizi nintzen.

Beraz, motxila hartu eta  
Bardenetara joan nintzen pentsatzera.  
"Inposiblea". Gerra-hegazkinek ateratako  
zaratarekin ez zegoen  
lo egiterik eta.  
Orduan ulertu nuen antimilitarista  
nintzela  
eta ahuntz-artaldeak zaintzeko ez-baizik eginkizun  
handiagosotarako  
deituta nengoela.  
Beraz, geratzen zitzaizkidan azken txanponekin  
patera batean tokia erosi  
eta Marokoko kostaldean lehorreratu nintzen,  
hango errege ustelari  
eta bere armada kakatiari  
lepoz beste egiteko ilusioz  
—horretan datza elkartasuna—.  
Eta halako gauza bakunak  
ulertzeko gai ez denak  
hobe luke bere bihotzean  
ostatu eginda dauzkan zorri  
guztien zenbatekoa lehenbailehen aterako balu!

\*\*\*

Eta bien-bitartean,  
erlojuko orratzak  
euren bideari loturik zihoazen,  
geldigaitz...

\*\*\*

Urrutitik iristen zen,  
amets ez baterik.  
Eta berriz ere igarotzen zenean,  
beti gelditzen zen  
haren arrastoaren berri zemaigun  
zerbait: airean zabukaturiko keinu bat, erdizkako  
hitzen bat,  
harekin joateko halako desira bat...

\*\*\*

Oroitzapen guztiak  
botilaren barruan sartu nituen;  
gero, leihotik bota  
eta mila puskatan apurtzen  
entzun nuen,  
etxarteko zoru zikinaren aurka.  
"Horixe nauk" esan nuen nire artean,  
"leihotik bota eta zoru zikinaren  
aurka mila puskatan apurtzen den  
oroitzapenez beteriko botila kazkar bat".  
Eta ez nembilen oker.  
Ostean, gizon berria bezala  
sentitu nintzela  
uste izan nuen.  
Usteak ustel, ordea...

\*\*\*



A, hau bai zoramena!  
Idazteaz guztiz gogaiturik nengoen.  
Baina ezin nuen ezer egin  
"hori" erremediatzeko.  
Kafea presta nezakeen,  
"hori" bai.  
Baina eserita geratu nintzen,  
kafe-makinari begira,  
gogaiturik...

\*\*\*

Lehenik, hipermerkatu batera joan nintzen.  
Apal guzti-guztiak arretaz begiratu ostean,  
autoa hartu eta beste "hiper" batera joan nintzen,  
eta han ere gauza bera egin. Orduan, autoan berriro  
sartu  
eta hirugarren hipermerkatua bisitatzera joan  
nintzen,  
bertan gaueko hamarrek jo zidaten arte.  
Eta kale gorrian geratu nintzenez,  
ezer eresia ez nuela ohartu nintzen.  
Eta hantxe, hirugarren hipermerkatuko  
aparkalekuan nengoela,  
basamortuan bezalaxe,  
begia gorantz jaso eta zerua izarrez gainezka  
zegoela ikusi nuen.  
Eta eskua ere gorantz jaso nuen;  
eta berriro jaitsi nuenean,  
esku-ahurrari so egin eta gauza distiratsuz beterik  
kausitu nuen.  
Oso ederra izan zen.

Oso ederra sentitu nintzen.  
Gero, ezer ez.  
Gaueko orduak igaro  
eta goizeko hamarrak heldu zirenean,  
munduko hipermerkatu guztiek  
ateak ireki zituzten,  
nik detonadoreari sakatu  
nion uneantxe...

\*\*\*

Izerdi patsetan nengoen  
eta lehengo bera izatea  
sekula ez nukeela berriz ere lortuko  
pentsatzen ari nintzelarik,  
atea ireki eta itxaropena berreskuratu nuen.  
Niri bost axola  
guztiura poesia zen ala ez.  
Ez nekien poesia zer izan zitekeen.  
Ez zitzaidan erantzuna axola.  
Beste behin bizirik egon  
besterik ez nuen nahi.  
"Eta zer gertatuko zatekeen  
beste erabaki hura hartu izan banu...?"  
Galderak —zeruak bezain erraldoiak—  
borborka neramatzan aldamenean.  
Ez nuen neure bakardadea jasaten,  
are gutxiago besteena.  
Bizi nahi zuen gorputz bat  
baino ez nintzen.  
"Eta hala izan ez bazen,  
atera nadila Astigarragako plazara".  
*Bai, Maddalen. Nik ere maite zaitut.*

\*\*\*

Egunen batean hilko nintzatekeen  
ziurtasuna nuen;  
sahiestu-ezinezko kontua zen,  
jaiotzea bezala.  
Gorrotatzen nuen, aldiz, transendentzia guztiura,  
banitate nazkagarria...  
Edertasun-bola bat igaro zitzaidan

eztarritik behera.  
Oraindikan nintzen sentitzeko gai.  
Gaua zen.  
Musika entzuten ari nintzen.  
Gainontzekoa, berez helduko zen.

\*\*\*

Tristurak  
tximeleta-hegalak zituen.  
Ez nintzen inoiz  
pertsona tristea izan;  
aitzitik, alaia.  
Izugarri alaia.  
Beraz, aiduru nengoen,  
haize berrien zain.  
Bizitza arin-bai-arin  
igarotzekoa baita.  
Eta irrikak  
gero eta urrunago geratzen zihoazkidan.  
Noizbait izandako ezer berririk  
ez nuen izan nahi,  
behinola edukitakoa berreskuratzeko  
bide bakarra huraxe zela  
iruditzen zitzaidalako.  
Unearen tentsioa maite nuen.  
Izaki barregarria nintzen,  
badakit —denek ez dakite hainbeste beraietaz—.  
Ezkutaturik jarraitzen nuen,  
nire izakerak bultzaturik.  
Denborak ez zidan  
itxarondakoetatik ezer ekarri.

Ezin zitekeen bestela izan.  
Entzun nahi nuen ahotsa  
huraxe ote zen  
ez nengoen ziur.  
Hitzak ieroglifiko sofistikatuak ziren.  
Gelditu eta pentsatzeak  
beldurra ematen zidan:  
den-dena zen hain ulertezina...  
Sugarrak izozturik zeuden.  
Hain erraza zen norabidea galtzea!  
Ez nuen iparrorratzik  
ezta itsasorik edo mendirik ere.  
Hantxe nengoen,  
beste mila tokitan egon banintekeen ere.  
Kasualitateak gobernatzen gaitu.  
Kasualitatearen  
—kasualitate baten— apeta gara.  
Denbora infinitua iraundako bidaiaren ostean,  
neure burua berraurkitu nuen,  
ordurako oso axolaturik ez banengoen ere.  
Hauxe nintzen,  
beste mila huraxe izan ahal nintzen bezala.  
Ezer ez egiteaz  
aspertzen hasita nengoen.  
Orduan, beltz koloreko  
bizikleta erostea erabaki nuen.  
Baina ez nuen inoiz horrelakorik egin.  
Ala bai...?  
Nire heroismorik eza  
nire eskuzabaltasunarekin  
mozorratzen nuen.  
Nintzena nintzen,

hori saihesterik izan ez nuelako.  
Jarraitasuna zen arazo bakarra.  
Eta Paris eta Londres,  
aspaldian iraungiak...  
Gizon batek bere bizitza guztia idazten igaro zuela  
amestu zuen;  
eta beste batek irakurtzen  
besteak idatzitakoa  
—elkarren osagarri izateko jaiok izan balira  
bezala—.  
Eskailera bat erosi behar nuen,  
sokaz egina,  
etxea noizbait suak hartuko balu.  
Baina ahaztu egin zitzaidan,  
eta orain ez zegoen ezer egiterik.  
Zerurantz begiratu nuen  
eta ergela eta txikia zela  
iruditu zitzaidan.  
Ez dakit zer daukan Wagnerrek,  
horraino zoratzen nauenik.  
Irudi batek ditu mila hitz balio;  
baina soinu batek mila irudi ditu balio;  
eta giza ahotsak  
mila soinu balio ditu.  
Beste garai bateko  
malenkoliaren jabe nintzen.  
Esku artean oso zeregin zaila neukan:  
izatea beti.  
Beraz, hitz-ekonomia ezarri beharra zegoen.  
Nola lortu halako helburua ordea?  
Hain maite, hain haragizko nuen  
zarrastelkeria...

Gainera, ez nintzen tituluduna  
(den-dena ez neukan aurka, beraz...)  
Orrialde bakan batzuk baino  
ez zaizkio falta,  
bere bizitzako azken egunak,  
azken orduak,  
azken liparrak amaitzeko.  
Transendentzia handiko une horiek  
halako intrazendentzia batez  
bizi izan nituen... ezer  
gertatzera joango ez balitz bezala.  
"Tori, nire eraztuna"  
esan zion urte luzez izandako ezkontideari.  
Gero, kandela betiko itzali zen.

# **OLERKIAK (III)**



Axuriol  
bidean, galduta.  
Izan ziren han arima batzuk  
gogoan denak hilak orain  
ez bailiran inoiz ezer izan.  
Axuriol  
boz bat gutxixegi denean  
lurpean  
zeruan bezala  
barru-barruan jaiotzen den  
zurrumuru antzeko  
berriz ere nonbait hiltzeko,  
urtebetetzeari zenbat urte  
bete gabe  
geratzen zaizkion  
galdegiten diogunean,  
hortxe,  
amaigabeko argi-ilun horretan.  
Axuriol,  
legendak altxatu zituzten  
zure omenez  
—hitzak,  
mintzo berdeak,  
sugeari atzerako eragiten ziotenak—.  
Hodeietatik zintzilik  
Axuriol badoa,  
axolagabe,  
begirada galdu hartan  
denbora guztiak txantxetakoak  
[balira bezala.]  
Axuriol,

haizeak nekez gomutatzen duen izena,  
ahantziak ez baitu bere lana alferrik egiten.  
Murmurioak zabaldu dira  
zugana daramaten  
harmaila guztietan zehar.  
Eta niri,  
gaur,  
ezpainetatik jalgitzen zaizkidan  
argi-ilun berbazko hauek dira  
poltsikoan gelditzen zitzaizkidan  
azken txanponak.  
Gero, ezer ez.  
Ezertxo ere ez.  
Axuriol...

\*\*\*

Libramendua  
—barrutik horzka  
ari zitzaidan  
kontu korronte  
lehor, makal eta zitala—.  
Nik neuk ere  
hortzak aski zorroztuta  
neuzkan,  
ia-ia osorik gehientsuenak  
—nire bihotzaz ezin hainbat esan—.  
Denbora jakina dago maitatu,  
gorrotatu, hortzak garbitu  
eta azkenik hiltzeko.  
Eta orduan, amildegiko ertzean  
zaudela oharturik,

ezereza besterik gelditzen  
ez zaigula  
geratu behar dugu  
behera begira,  
izuturik,  
ia-ia indiferentziaz,  
eman beharreko urratsa  
geurea ez-baizik  
beste batena izatera  
joango balitz bezala.

\*\*\*

Emakumea  
zangoak irekita,  
erditik ("zulo beltzetik")  
arrain bat —hilik—  
ateratzen zaiola;  
hilik...?  
hilik atera...?  
Ez jauna!  
Norbaitek jarria,  
hortxe,  
emakumearen  
bi zangoen artean,  
bere begirada itzalezin,  
opaku horrekin,  
berari ez-baizik eta  
bizitzari begi bat ixtea  
ahaztu izan balitzaio bezala.  
Orduan,  
emakumeari begiratu

eta begitarte horixe daukala  
ohartzen naiz  
—begitarte itzalezin,  
opakua—.  
Bera ere hilik dagoela.  
Orduan,  
gorantz begiratu  
eta emakumea  
—eta zango arteko arraina—  
beste bi zango handiagoen artean  
sartuta daudela ikusten dut,  
ikaraz.  
Orduan,  
ulertzen dut  
"mashenka" baten patua dela  
gurea.

\*\*\*

Poliki-poliki,  
seme,  
betetzen doaz  
nire desirak.

\*\*\*

Gatibua naiz  
eta —kar, kar, kar— barre dagit  
nire mamuen lepotik.  
Gatibua naiz  
eta laket zait  
zure begiradan  
ezer onik ez dagoela egiaztatzea.

\*\*\*

Hezurkiak nonahi sakabanaturik,  
lurrari kolatuta,  
hantxe inmolatu izan balituzte bezala;  
noizean behin, lurra inarrosi egiten zen  
baina hezurkiek lur azalari  
tinko atxikita zirauten.  
Ilundegian eroriak ginen  
eta izotz geziek zeharkatzen zuten  
gure haragi zimel eta beratza,  
poliki-poliki haragi-puskak  
gorputzetik jaulgitzen hasi zitzaizkigun arte.  
Ahotik hitzak eta organuak ere  
jario zitzaizkigula,  
gure desira nahikotzea erabaki genuen  
eta requiem-ari ez genion jaramonik egin,  
sorgin belarra obratzen hasita baitzegoen.  
Yuppyen lepotik barre handiak egin eta gero,  
Espainiako Banketxe Nagusian  
sartu ginen  
—gu geu baikinena Zuzendari Nagusiak—.  
Gure oroitzapenen sakanean

bi + bi ez ziren  
hogeita sei baizik,  
jende saiatua ginen eta  
—euskaldun peto-petralak!—.  
Ibaiko urak —gure nahasmenduaren ispilu—  
iseka artean jaisten ziren bipil,  
mendi garaiak betiko, penarik gabe,  
atzean utzita.

\*\*\*

Gauari onura piska bat sikiera  
ustiatu nahian genbiltzan.  
Irainak-eta  
behin betiko utziak genituen  
bazterrean.  
Ustelgaitzak ginela iruditzen zitzaigun  
—ohartu gabe txiroak besterik ez ginela—.  
Bihotzetik zornea zerigun  
(bazirudien nazkaren etika  
bilakatu nahi ginela),  
usadio zaharrak halaxe  
agintzen zigun eta.  
Gure sentimenduen taxidermistak ginen.  
Eta beherantz begiratzen genuenean,  
arrautza baten historia  
topatzen genuen beti.  
Garai hartan oraindik ez genekien  
parke telematikoen berri;  
teologia besterik ez zitzaigun  
interesatzen

—zorriak zenbatzea ere gure gustoko  
beste kultur jarduera bat zen—.  
Tematiak ginen;  
behin eta berriro erreparatzen genien  
geure izen-abizenei,  
buruz ikastea lortu arte.  
Ordurako zeruak utzia zion  
urdina izateari  
eta gure begiradan  
telefrafi hariez osaturiko  
oihan itzela zabaltzen zihoan,  
munduaren helburu  
gu geu izango bagina bezala.  
Telefono batek hots egin zuen  
eta guk teleskopioa eskegitzea  
erabaki genuen,  
une teluriko haiekin amaitzeko.  
Teleklubaren txartela  
ez zebilen ondoegi:  
etxea izaki arrotzez  
beterik nuen;  
poliedroak, poliki-poliki,  
bere hostoak galdu zituen,  
Ponpeiak bere loria  
galdu zuen bezala.  
Populazioa eta eiakulazioa  
bi gauza txit antzeko  
zirela ere erabaki genuen,  
mugimendu eta kopuruagatik seguraski  
—auskalo—.

\*\*\*

Irudikeriaz inguraturik nengoen,  
eta irtenbide eskizofrenikoak  
labaintzen zitzaizkidan  
burmuin barrura;  
pentsamenduek takoi luzeak  
janzten zituzten  
eta airez zihoazen,  
hegalei eraginez.  
Montevideoko zerua ederra zen.  
Nire bizitzaren kobratzailea  
igarotzeko zegoen —oraindik  
banituen urte batzuk, bederen—.  
Nire ideien kolaborazionista nintzen,  
merezimendu osoz  
(nik uste);  
mentxebikeak eta boltxebikeak  
nortzuk ziren bereizteko  
pentsatu beharra neukalako  
—hori bai seinale txarra...!—.  
Lorifikaturiko inpresioak,  
lohia baino zikinagoak,  
jira eta bira,  
nekagaitz... izugarrizko une  
baten ostean,  
abaildurik,  
nire hezurak oraindik  
nireak zirenean,  
han,  
paisaia urbano eta urrun hartan,  
hurrengo abestiaren zain,  
Herio hermetikoari



hitz bat erregutuz,  
alferrik,  
ixilean ematen baitu  
beti bere ordaina,  
gure heroikotasunaz  
ahaz ez gaitezen,  
herrialdez herrialde,  
gosaltiar aseezinak gu,  
lupetza honetatik  
atera ezinik,  
mihina begiei loturik,  
gure bizikidea segunduoro gorrotatuz.  
Eta bien bitartean,  
bizikleta hor behean,  
sotoan,  
herdoiltzen,  
gure hezurak bezala,  
behatoki barregarri honetatik  
gauzak garbiago ikusten direla  
sinetsarazi diogu-eta geure buruari,  
behialako lagunek  
jaurkitzen diguten begirada  
trufatia bihotz-bihotzean  
iltzatzen zaigula,  
zeharkatu beharreko  
leiho antzeko zerbait  
izango bagina bezala.  
Benetan uste dut  
gure gizateriari  
denbora agortu zaiola  
eta amaiera hurbila...  
zera, ba,

denbora-kontua  
baino ez dela.  
*Kof-kof.*

\*\*\*

Ikonoklasta,  
beti izan nintzen bezala;  
paganoa,  
beti gustatu zitzaidan bezala.  
Jainkoak eria ikertu zuenean,  
bere epaia eman zuen argi eta garbi:  
hiltzen bada, zerura joango da.  
Zeren, hiltzen ez bada,  
bizirik geratuko baita  
infernu honetan.  
Jainkoak, ikertezin,  
bere epaia eman zuenean,  
oraindik den-dena  
galduta ez zegoela  
uste izan zuen,  
Jainkoa ere okertzen baita,  
gaizkoatzen,  
bere jainkosaedro horretan,  
ketsu, erne, grafista...  
zeruko orrialdeak pasatzeak  
neke latza emango balio bezala.  
Nire bizitzan ere "bezala" askotxo  
ez ote dauden beldurtzen hasita nago.  
Ikaraturik bizi naiz,  
kaka txoriei begira,  
lur santu honetan

entzuna det-eta  
ilargi erdiko bandera  
altxata dagoela.  
Hau ez da poema bat;  
hau ikono bat da  
(esan al dizuet noizbait  
ikonoklasta naizela?).  
Tren zaharra bipil doa  
lautada eskergan zehar,  
tunelak atzean utziz.  
Ikatza pentsamendutan  
biribiltzen zait  
ikasle garaietan legez;  
itsasoa garagardo beltza zen  
inork ez zekien igeri egiten  
denak itota hiltzen ziren horrenbestez  
sudurretatik goizeko ihintz zikina paladaka  
ateratzen nuen  
—gutxiegi ikertu da alderdi horretaz—  
bakardadean bizi nintzenean  
gizon askeagoa banintzen ere  
—gero ikertzaile bilakatu  
eta bizitzak kikildu ninduen  
eta ikonoklasta bilakatu nintzen  
ikatz piloan artean ikerlari,  
modu aski sakratuan  
ikasle garaietan  
—aspaldi atzean utzitakoetan—  
mutil aski aplikatua  
izan nintzela  
—ba baitakit behinola izan ere izan nintzela—  
aprobetxaturik.

Beraz, etxea neukan  
ikonoz josita;  
ni neroni zer ote nintzen  
beste ikono-kloniko-komiko-kosmiko  
horietako bat baizik?  
Ordurako, esan daiteke,  
ia-ia gauza guztiak  
ibili, ba, bazebiltzala;  
ez dakidana da nora arraiotarantz...  
Baina, nork daki  
halako ñimiñokeria baten berri?  
Jainkoak...?  
Ideia horiek ez al ziren ikertezinak, ba...?  
Ez, ni orrialde hartan  
oso-oso gustura nengoen.  
Bertan egon nahi nuen;  
bertan izan nahi nuen;  
bertan hiltzen geratu nahi nuen;  
eta gerokoak geroko...  
Ez neukan karrerarik,  
goi mailako ikasketarik,  
eta ez nintzen homosexuala.  
Bai bataz  
bai besteaz  
poztu egiten nintzen  
zergatik ez banekien ere.  
Egia esan,  
hura ere ikonosaedroaren zati zen,  
ikergaia alegia,  
orritik —nire orritik—  
ihes egiteko  
—edo, hobeto esan—

ihes ez egiteko  
arrazoi bakarra.  
Bai, jaun-andreok:  
ez nintzen ikerlaria  
bizitza ikertezina  
iruditzen zitzaidalako;  
eta inolako ikerketarik  
egiteko enkargua sekula jaso ez nuelako.  
Ikonoen kontua hor zegoen, ordea:  
ikergai,  
nire pornografia guztiz ikonografikoa  
ez ote zen susmoa  
aspaldidanik errotuta  
neramalako,  
nire jakako poltsiko merkean,  
ikasle garaiak  
ijito antzo  
azalpen eske  
inguratuko balitzaizkit bezala  
—berriro ere "bezala"?—.  
Ikaragarria zen:  
50 urte betetzeko zorian nengoen  
eta goi-mailako ikasketak artean  
amaitu gabe neuzkan.  
Joder!  
Ni bai probetxu gutxiko gizasemea.  
Unibertsitateak hainbeste gauza  
nola ematen dizkion  
ikasle eta funtzionario  
aplikatuari!  
Nire ikonosaedroaren barruan  
atxilotuta nengoen

eta zeinen ederki nekien...  
Igelak ikatza irentsi zuen  
eta ia jarraian  
begietan bi izar beltz gori  
—yori!—  
piztu ta itzali zitzaizkion,  
ikarati.<sup>1</sup>

\*\*\*

Sukarra daukat  
eta nire diskurtsoan  
gezi guztiak doaz  
kamuts, disolbaezin, desleial...  
Jendilajea hazia nauzue;  
eta orain, guraso eginda ere,  
ez dakit poliziari  
errespetua gordetzen  
(beti jendetasun handiz  
jokatu banuen ere).  
Jentila dut arima  
pikaderoraino.  
Berandu nator  
honantz;  
goiz noa  
harantz;  
Bertan gelditu izan banintz,  
hainbat eta hobe...

\*\*\*

---

<sup>1</sup> J. Miranderen olerki ospetsuari loturiko hitz jolasa.

Hitzik gabeko hasierak  
ez dakigu inoiz  
noraino eramango gaituenik;  
hitzak espazio eten batean  
ez dira gure Sortzailearen arnasa baizik,  
eta hortxe uzten dugu  
geure fede galgarria,  
ardo-hats horren lekuko...

\*\*\*

Urmahel batean,  
non flotatzen ziren nire oroitzapenak,  
eta uretan  
non islatzen ziren  
udazkeneko zuhaitz harro-apal guztiak,  
eta hostoak bien bitartean etengabe erortzen...  
Nik, eskua urmahelean,  
uhin txikitxoak sortzen nituen,  
eta iratzarrita  
amets egiten nuen,  
eta, zergatik ez?  
oraindik sinesten nuen  
—behar nuen—  
maitasunean.  
Gizadiaren maitasun zahar eta erabilia...  
Momentu hura hantxe geratu zitzaidan,  
espaziotik kanpo bezala,  
jainkozko edo izadizko esku batetik zintzilik,  
ni nintzela sinetsi ezinik.

## POEMARIO ERGELA

Bihotzean dut mina  
sartua dut arantz bat;  
kentzen saiatuz geroz  
mina areagotzen da.

Bihotzean dut arantz bat  
atera ezin dudana  
lagundu idazu, lagun;  
orain ez eman bizkarra.

\*\*\*

Ikusi dut ilargia  
zeru puska batean  
ireki zait bihotza  
ilargi-izpia bailitzan.

\*\*\*

Ezina zait ulertzea  
gizarte mozorro hau.  
Atzerrian ez daukat  
aparteko esperantza.

\*\*\*



Hodeiak igarokor dira  
gure bizitza bezala  
horien atzetik ekinda  
alferrik galtzen gara.

\*\*\*

Orori bizkar emanda  
ibili naiz munduan  
gure hildako maiteak  
eman aholkuari jarrai.

\*\*\*

Gauzak diot alderantziz  
hankaz goratuak beti  
belarri eginez geroztik  
hasiko zara dudati.

\*\*\*

Abestiak ondo daude  
umeak lokarrazteko  
gure herrian falta dira  
umeak zeinei kantatzeko.

\*\*\*

Ari gara borroka latzean.  
Biharko zahar egoitz den  
honetan nork gauzatuko du  
hildakoen oroit eza...?

\*\*\*

Bihotzez esku zabal  
begiez itsu bada  
nori irakatsiko dio  
bidearen ederra?

\*\*\*

Errima gabeko hau  
ontzat du jotzen gorrak  
baita gure kontuez  
belarririk ez duenak.

\*\*\*

Jende xumea  
bihotzez dut maite  
Asko dakiena ordea  
bihotzez dut aiher.

\*\*\*

Iturria agortu da  
urik ezean, andere,  
ekarriko dut zuretzat  
upel bat ardo bete.

\*\*\*

Esango balinate  
erori naizela  
piztu ezan kandela  
aitonaren etxean.  
Esaion semeari  
aitak maite duela  
ta alabatxoari  
mutil joka dezan  
mundu honetan behar baita  
ausart ibiltzea  
nahi ez badugu, behintzat,  
trufaz geratu irteeran.

\*\*\*

Hutsa degu barrena  
kantatutzen dut alai  
gorriak ikusi nahi  
ez, erne egon behar.